

## 2.4. Nobela gotikoa


XVIII. mendearen bigarren zatian kokatuko genuke genero narratibo gotikoaren sorrera. Nobela historikoaren oihartzunez beterik agertu zen, esate baterako, generoari abiapuntua eman zion nobelaren kasuan: **Horace Walpol**-en (1717-1797) *Otrantoko gaztelua* Erdi Aroaren aztarnak gordeko lituzkeen gaztelu batean girotzen da. "Beldurrezko nobela"ren aitzindaria den nobela gotikoaren ezaugarrietako bat hauxe da: misterio eta beldurrezko sentimenduen tratamendu melodramatikoa. Badu, alde horretatik, lotura xume bat gorago aipatutako nobela sentimentalekin.

Bi emakume dira nobela gotikoaren ordezkari nagusiak:

- **Ann Radcliffe** (1764-1823), zalantzarik gabe genero gotikoari sendotasuna eman ziona. *Udolfo*ren misterioak da egilearen nobelarik aipagarriena.
- **Mary Shelley**-k (1797-1851), *Frankenstein* nobela ospetsua idatzi zuen.

**Bram Stoker**-en (1847-1913) *Drakula* nobela izango litzateke XVIII. mendean sortutako genero haren emaitza berantiar aipagarriena.

Aipagarria da bai Shelley-ren *Frankenstein* nobelak bai Stoker-en *Drakula*-k zineman lortu duten arrakasta.



## 3. Erromantizismoa Estatu Batuetan

Ipar Ameriketako literatura XIX. mendean loratu zen: **Edgar Allan Poe** (1809-1849) eta **Walt Whitman** (1819-1892) dira –**Emily Dickinson**-ekin batera– izen aipagarrienak poesian. Narratiban, berriz, hiru idazle hauek gailendu ziren: **Edgar Allan Poe**, **Herman Melville** (1819-1891) eta **Nathaniel Hawthorne** (1804-1864). Maila apalagoan daude **Washington Irving**-en (1783-1859) *Alhambrako ipuinak*, Granadan entzundako elezaharretan oinarrituak; eta **James Fennimore Cooper**-en (1789-1851) *Azken mohikanoa* nobela, indiarren eta europarren oinordekoen arteko liskarren kontakizuna.

**Herman Melville**-k (1819-1891) itsasoko gertaeretan aurkitu zuen idazteko iturri oparoena; *Moby Dick* da, zalantzarik gabe, bere nobelarik aipagarriena. Eromenaren infernu zuloaino egindako bidaiaren istorioa da *Moby Dick*, alegoria modura hartuta: ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka epikoa da. Itsasoa, azken batean, gizonaren eta patuaren arteko lehiarentzako paisaia baino ez da. John Huston zinemagileak *Moby Dick*-en bertsio gogoangarria estreinatu zuen 1956an. XIX. mendean barrena ez zuen Melville-k arrakastarik lortu, eta baztertua eta pobrezian hil zen. Haren nobelak maisu lantzat hartzen dira gaur egun.

